

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 2637

*EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 14koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, «Joxe Mari Korta» sarien 2013ko deialdia argitaratzen duena, «Joxe Mari Korta» sariak arautzen dituen 2009ko uztailaren 29ko Aginduan ezarritako esparruaren barruan.*

2009ko uztailaren 29ko Aginduak (2009ko abuztuaren 10eko EHAA, 151. zk.) arautzen ditu «Joxe Mari Korta» sariak. Agindu hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2011ko apirilaren 20ko Aginduaren bidez aldatu zen (2011ko maiatzaren 17ko EHAA, 92. zk.).

Agindu horren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da 2013ko ekitaldiko sarien deialdia egitea eta horretarako eman beharreko arauak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 4. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Helburua.

«Joxe Mari Korta» sariak arautzen dituen Industria eta Berrikuntzako sailburuaren 2009ko uztailaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2013ko deialdia egitea da ebazpen honen helburua. Agindu hori, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko apirilaren 20ko Aginduak aldatu zuen, «Joxe Maria Korta» sariak arautzen dituenak.

##### 2. artikulua.– Betekizunak.

Agindu arautzailearen 3. artikuluan zehazten diren pertsona fisikoak izan daitezke ebazpen honen bitartez deitutako sarien onuradun.

Aurkeztutako hautagaiek Aginduan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, Agindu arautzailearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

##### 3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Hautagaitzak eta aginduzko gainerako agiriak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzara bidali behar dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduetakoren batean.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENEGOA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

2013ko ekainaren 7a, ostirala

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 14a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
ARANTZA TAPIA OTAEGI.